

2024KO MAIATZAREN 10A

# begoñazpi

## astekaria

AGERRALDIAK

# AZKEN TXANPA

HAUXE DA IKASTURTEA AMAITU ARTE  
BURUTUKO DOGUZAN EKITALDI ETA  
JARDUNALDIEN EGUTEGIA.

# 2024

ANTZERKIA



ZIENTZIA AZOKA



BALLET EMONALDIA



MARY POPPINS MUSIKALA



MUSIKA EMONALDIK



BATXILERGOKO AGURRA



KRISTALIZAZIOA



ERDI AROKO AZOKA



LEGOÑAZPI



ROBOTIKA



# Ikasturte amaierako egutegia jardueraz gainezka

Begoñazpi Ikastolako ikasturte amaiera jardueraz beteta dator, proiektuak, dantza, musika, ikuskizunak... Lan eskerga eta itzelezko ahaleginaren emaitza. Aparteko lana egiten dabilz ikasleak. Izango dozue barri gehiago.



## Euskal Dantzak

Barriro dogu gure artean Ikastolan egiten izan dogun dantza-alardea. Oraingo honetan, Urretxindorra taldeagaz batera antolatu dogu. Euskal Dantzak, kultura, historia, tradizioa, kidesuna, kirola edo poza dira.



## Nestor Basterretxea eskultoreari omenaldia



Nestor Basterretxeak aurten bizi izan balitz, 100 urte beteko ebazan. Begoñazpi Ikastolan artelan bat baino gehiago itzi eban eskultoreari, omenaldia egin gura deusogu. Hezkuntza, diziplina, fantasia eta mugimendua adierazten dauan eskultura, Haur Hezkuntzako parkean dogu. Gogoan izan hauxe dala Gazte Role Model Sarien irudi eta ezaugarria.



## Expovacaciones ekimenaren bidez, Europa ezagutu!

Ikasleek hiru hileroan zehar lantzen dabezan ulermen-proiektuen artean, Expovacaciones proiektua dago. Europako herrialdeen historia, kultura eta antolaketa ezagutzeko bidea. Europa Egunean zer hoberik horixe gogorarazteko!



## Udalekuak: emon izena!

Gogoratu daborduko uda honetako udalekuetan parte hartzeko izena emon daikezuela. Egonaldiak Nafarroan (Beire eta Izaba), Done Jakue bidea, eguneko kanpalekuak eta urte biko umeentzako jarduerak. Izena emoteko epea zabalik maiatzaren 17ra arte.



## Kirol Astean kirol egokitua aztertzen

Begoñazpi Ikastolako kirol asteak aukeraz eta erralitatez betetako beste mundu bat ireki dau. Kirol egokituari esker, ikasleek jardura horren baloreak egiaztatu ahal izan dabez, ahalegina, jokabide etikoa, umiltasuna eta justizia, besteak beste.

